



Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoa
Secretaría Técnica de Coordinación

Príncipe, 5 – 7ª planta. Oficina 702

48001 Bilbao

Tfno.: 944 245 656

Fax: 944 232 663

sarea@ikerpartners.com

EUSKAL ANTZOKI SAREAREN PANORAMIKA:

EAEko espazio eszeniko publikoak babesteko
erakunde arteko plataforma

2019-2021 txostena

AURKIBIDEA

2021eko estatistika... laburbilduz	3
1.- Emanaldiak	6
2.- Ikusleak	8
3.- Aurrekontua	10
4.- Euskal konpainiak	15
5.- Euskarazko antzerkia	21
6.- Generoa	26
7.- Fitxa teknikoa	29

2021eko estatistika... laburbilduz

2020an adierazle guztiek behera egin ondoren (emanaldiak, ikusleak, gastua eta diru-sarrerak), 2021eko datuek agerian uzten dute sareko antzokiek ahalegin handia egin dutela, urte horretan oraindik indarrean zeuden ordutegi-mugak eta edukiera-murrizketak gorabehera, publikoari eskaintza zabala eta irisgarria berriro proposatzeko, bai eta konpainiei laguntzeko ere, pandemiarekin izandako atzerakada konpontzeko.

Ilido horretan, 2019an programatutako EAEko 282 musika-talde/antzerki eta dantza konpainia 346ra igaro dira 2021ean, eta emanaldien kopurua ere %17 handitu da.

Adierazle nagusien bilakaera

	2019-2020	2020-2021	2019-2021
Emanaldi kopurua	-%21,8	+%29,7	+%1,4
Ikusle kopurua	-%46,1	+%19,3	-%35,6
Emanaldiaren arabera batez besteko diru-sarrerak ¹	-%17,3	-%16,5	-%30,9
Emanaldiaren batez besteko katxeta	-%4,1%	-%5,5	-%9,4

¹ Hiriburuetakoko datuak kontuan hartu gabe, Donostiako Gazteszena eta Lugaritz izan ezik.

SAREaren 2021eko eskaintza eszenikoak zertxobait gaitzen du 2019an erregistratutako emanaldi-kopurua, hau da, pandemia baino lehen.

Hala ere, **ikusleak 2019an baino %35,6 gutxiago dira oraindik**, eta hori, neurri batean, 2021ean oraindik indarrean dauden murrizketengatik justifika daiteke, baina baita beste faktore batzuegatik ere, hala nola ohiturak aldatzeagatik edo herritarrek gune publikoak partekatzeko duten errezeloagatik, edo oraintsuago, etxekoen unitateen gastua murrizteagatik ziurgabetasun ekonomiko handiagoko testuinguru batean.

Normala denez, emanaldietara ikusle gutxiago joateak diru-bilketa txikiagoa ekartzen du; hala ere, ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak ia ez ziren aldatu 2019. urtearekin alderatuta. Bestalde, emanaldi bakoitzeko batez besteko kaxeta ere jaitsi egin zen, diru-sarrerak baino gutxiago izan arren. Beraz, **2019an, leihatilako diru-sarrerak eta dirulaguntzak deskontatu ondoren, udalek batez beste kaxetaren %15 inguru finantzatzen zuten, baina 2021ean ehuneko hori %40ra igotzen da.**

Joera orokor horiek, hala ere, desberdinak dira azterketako aldagai batzuei erreparatuz gero:

Formatu txiki eta ertaineko antzokiek urte arteko emanaldien eta publikoaren hazkunderik handienak izan dituzte 2021ean, eta hiriburuetatik kanpo kokatutako formatu handiko antzokien eskaintza 2019koa baino are txikiagoa izan da.

Datu horietatik eta batez besteko kaxetaren jaitsieratik ondoriozta daitekeenez, programazioen arduradunek zein sortzaileek eskaintza eta ekoizpenak errealitate berrira egokitu behar izan dituzte, espazio txikiagoetan gehiago programatuz, baita Sarearen programazioari lekua eman dioten espazio alternatibo berrietan ere.

2019arekin alderatuta, ikusle helduen/gazteen heren bat inguru galdu da (-%31,2), eta haurren kopurua erdira jaitsi da (-%47,7). Ildo horretan, haurrei zuzendutako eskaintza 2019koa baino txikiagoa da (-%16,3), eta helduei/gazteei zuzendutakoa, berriz, %10 inguru handitu da. Hala ere, emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopurua murriztu egin zen bi tipologietan.

Haur-programazioak behera egin duen arren, **euskarazko antzerki-eskaintza mantendu egin da (2019an baino emanaldi bat gutxiago), ikusle helduentzako/gazteentzako programazio handiagoari esker.** Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruaren arabera, ikusleen galera antzekoa izan da euskarazko antzerkian (-%35,6) eta gaztelaniazko antzerkian (-%38,8).

Antzerkiak jarraitzen du izaten generorik programatuena, baina emanaldiek %11,4 egin dute behera 2019. urtearekin alderatuta; beraz, eskaintzaren barruan garrantzia galdu du, 2019ko programazioaren %73,7 izatetik 2021eko %63,2 izatera igaro baita. Hala ere, musikaren eta dantzaren eskaintzak %77,1 eta %14,5 egin du gora, hurrenez hurren.

Azkenik, **euskal konpainia/musika-taldeek kasuan, eskaintzak genero guztietan egin zuen gora, lirikan izan ezik;** izan ere, 2019. urtearekin alderatuta, 115,9ko eta %35,3ko igoerak izan ziren kontzertuetan eta dantza-emanaldietan. Antzerki-emanaldiek, berriz, ia maila berean jarraitu zuten (+%0,7), eta lirikakoak %54,2 jaitsi ziren. Bi faktorek eragin dezakete musika-emanaldien gorakada garrantzitsu hori: alde batetik, kontzertu-areto askok beren espazioak itxita mantentzea erabaki zuten, 2021ean indarrean zeuden murrizketek beren jarduera ekonomikoki jasangarria izatea eragozten baitzieten, eta, horren ondorioz, eskaintzaren zati bat espazio eszenikoetara joan omen da; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako *Beste bat!* programak antzokietako musika-eskaintza handitzen ere lagundu du.

1.- EMANALDIAK

Kopurua guztira **2021**

1.940 emanaldi

**SAREaren eskaintza eszenikoak
pandemiaren aurreko maila
berreskuratu du 2021ean**

Tamaina txikiko herrietan dauden formatu txikiko eta ertaineko antzokietako emanaldiak nabarmen ugartu dira; antzoki handien programazioa, berriz, pandemiaren aurretik erregistratutako baino are txikiagoa da.

BILAKAERA

Emanaldien kopuruak %1,4 egin zuen gora 2021ean 2019. urtearekin alderatuta, eta 1.940 emanaldietara iritsi zen; beraz, 2020an erregistratutako urte arteko %21,8ko beherakadaren ondoren, eskaintza eszenikoa pandemia aurreko balioen antzekoa izan zen.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Formatu txikiko eta ertaineko antzokien %26,6k eta %14,8k egin zuten gora 2019aren aldean, hurrenez hurren, eta bien artean 2021eko eskaintzaren %63,8 bildu zuten. Hala ere, hiriburuetakako antzoki handien eskaintzak %17,3 egin zuen behera, eta formatu handikoek, berriz, eskaintzaren heren bat inguru galdu zuten (-%32,2).

UDAL-TAMAINA

Eskaintzaren hazkunderik handiena, 2019. Urtearekin alderatuta, 7.500 biztanletik beherako udalerrietan izan da (+%44,9); 100.000 biztanletik gorakoetan, berriz, eskaintza %17,3 txikiagoa da oraindik pandemiaren aurretik erregistratutakoa baino.

Tamaina ertaineko udalerrietan, 7.501 eta 25.000 biztanle bitartekoak eta 25.001 eta 100.000 bitartekoak, eskaintza %7,2 eta %2,6 hazi zen, hurrenez hurren.

IKUSLE MOTA

Lau emanaldietatik ia hiru helduei zuzenduta daude. 2019ko datuekin alderatuta, helduei zuzendutakoak %9,6 hazi ziren, eta haurrei zuzendutakoak, berriz, %16,3 jaitsi ziren.

ESTADISTIKA TAULA OSAGARRIAK

	2019		2021		Bilakaera		
	Absolutua	%			2019-2021	2020-2021	
Emanaldiak UDALERRIAREN TAMAINAREN arabera	0-7.500	198	%10,3	287	%63,1	%44,9	%63,1
	7.501-25.000	569	%29,7	610	%29,8	%7,2	%29,8
	25.001-100.000	475	%24,8	487	%32,7	%2,5	%32,7
	100.000 <	672	%35,1	556	%15,1	-%17,3	%15,1
	GUZTIRA	1.914	%100,0	1.940	%29,7	%1,4	%29,7
Emanaldiak FORMATU/MAILAREN arabera	Hiriburuetakoa						
	antzokiak	672	%35,1	556	%28,7	-%17,3	%15,1
	Formatu handia	214	%11,2	145	%7,5	-%32,2	-%9,4
	Formatu ertaina	528	%27,6	606	%31,2	%14,8	%45,3
	Formatu txikia	500	%26,1	633	%32,6	%26,6	%45,2
GUZTIRA	1.914	%100,0	1.940	%100,0	%1,4	%29,7	
Emanaldiak IKUSLE MOTAREN arabera	Heldua/gaztea	1.306	%68,2	1.431	73,8%	%9,6	%37,1
	Haurrak	608	%31,8	509	26,2%	-%16,3	%12,6
	GUZTIRA	1.914	%100,0	1.940	100,0%	%1,4	%29,7

2.- IKUSLEAK

kopurua guztira **2021**

332.629 ikusle

Pandemiaren murrizketek 2021ean baldintzatutako bertaratze-datuak

Pandemiaren aurretik erregistratutakoak baino maila baxuagoetan dago 2021ean ikusleen bertaratzea, eta hori logikoa da nolabait, kontuan hartuta edukiera mugak 2021eko urrira arte egon zirela indarrean eta eskaintza txikiagoa izan zela antzoki handiagoetan.

BILAKAERA

Sarearen esparruan programatutako emanaldietara bertaratutakoak 2019an baino %35,6 gutxiago dira oraindik, hau da, pandemia baino lehen. Ohar positibo gisa, nabarmendu behar da ikusle kopurua %19,3 handitu zela 2020aren aldean.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Ikusle kopurua 2019koa baino txikiagoa izan zen, antzokien formatu guztietan. Hala ere, formatu handiko antzokietan ere ikusle kopurua murriztu egin zen 2020arekin alderatuta (%17,1), eta gainerakoetan joera aldatu egin zen.

UDAL-TAMAINA

Udalerrri txikienetako antzokiak (7.500 biztanle arte) dira 2021ean 2019ko ikusle kopurua gainditzen duten bakarrak, pandemia baino lehen (+%12,6); gainerako udalerrietan,

berriz, galera esanguratsua da oraindik. Ildo horretan, kontuan hartu behar da udalerrri txikiagoetan ikusle kopurua handitu egin dela eskaintza nabarmen handitu delako, besteak beste, 2021ean udalerrri horietan 2019an baino bi espazio eszeniko gehiago egon zirelako, emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruaren ratioak behera egin baitu segmentu guztietan. Bestalde 2021ean, 100.000 biztanletik gorako udalerriek ikusleen erdia inguru bildu zuten (%47,9), eta txikienek (7.500 biztanle arte), berriz, %5,9.

IKUSLE MOTA

Ikusle helduek/gazteek guztizkoaren %80 inguru hartzen dute 2021ean. 2019aren aldean, helduak/ gazteak %31,2 jaitsi dira eta haurrak %47,7.

ESTADISTIKA TAULA OSAGARRIAK

	2019			2021			Bilakaera		
	Absolutua	%	Eman..	Absolutua	%	Eman..	2019-2021	2020-2021	
Ikusleak UDALERRIAREN TAMAINAren arabera	0-7.500	17.386	%3,4	87,8	19.565	%5,9	68,2	%12,5	%43,2
	7.501-25.000	102.380	%19,8	179,9	70.294	%21,1	115,2	-%31,3	%6,7
	25.001-100.000	117.603	%22,7	247,6	83.017	%25,0	170,5	-%29,4	%26,0
	100.000 <	280.709	%54,2	417,7	159.753	%48,0	287,3	-%43,1	%19,2
	GUZTIRA	518.078	%100,0	270,7	332.629	%100,0	171,5	-%35,8	%19,0
Ikusleak FORMATU/ MAILAren arabera	Hiriburuetakoa antzokiak	280.709	%54,2	417,7	159.753	%48,0	287,3	-%43,1	%19,2
	Formatu handia	58.593	%11,3	273,8	22.344	%6,7	154,1	-%61,9	-%17,7
	Formatu ertaina	107.001	%20,7	202,7	90.669	%27,3	149,6	-%15,3	%29,7
	Formatu txikia	71.775	%13,9	143,6	59.863	%18,0	94,6	-%16,6	%23,7
	GUZTIRA	518.078	%100,0	270,7	332.629	%100,0	171,5	-%35,8	%19,0
Ikusleak IKUSLE MOTAren arabera	Heldua/gaztea	379.328	%73,2	290,5	260.271	%78,2	181,9	-%31,4	%23,0
	Haurrak	138.750	%26,8	228,2	72.358	%21,8	142,2	-%47,9	%6,7
	GUZTIRA	518.078	%100,0	270,7	332.629	%100,0	171,5	-%35,8	%19,0

3.- DATU EKONOMIKOAK

Kontratazio-gastua 2021

7.677.073 euro

Antzokiek kontratazio-gastuen %50 inguru berreskuratzen dute diru-bilketaren bidez, %10 foru-aldundien dirulaguntzaren bidez, eta udalek gainerako %40a estaltzen dute².

ADIERAZLE EKONOMIKOEN BILAKAERA¹

2021ean antzokiek 2019an lortzen zituzten diru-sarrerren laurdena galdu da. Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerek %30,9 egin dute behera, eta kontratazioaren batez besteko kostuak, berriz, %9,4 egin zuen behera aldi berean. Beraz, batez besteko terminoetan, ikuskizunen errentagarritasuna eta antzokiek beren burua finantzatzeko duten gaitasuna okertu egin dira. Funtsean, bi urte horietan publikoa galdu izanak eragin du beherakada hori, ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 2019koaren ia maila berean mantendu baitira (6,70 eta 6,71 hurrenez hurren).

Nolanahi ere, kezagarria da diru-sarrerak eta batez besteko katxetak ere jaitsi egin zirela 2020. urtearekin alderatuta (-%16,5 eta -%5,5 hurrenez hurren).

ANTZOKIAREN FORMATUA

Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerren jaitsiera nabarmenagoa da antzoki handienetan (-%39,1) eta txikienetan (-%31,5); tartekoetan berriz, beherakada apalagoa izan zen (-%17,9); aldi berean, batez besteko katxetaren jaitsiera handiena izan zuten

(-%9,6). Hala ere formatu handiko antzokiek diru-sarrerren eta kostuen arteko erlazioirik onena dute (%39,3).

UDAL-TAMAINA

Batez besteko diru-sarrerak antzeko proportzioan jaitsi ziren segmentu guztietan; hala ere, batez besteko kontratazio-gastuak gehiago jaitsi ziren udalerrri handienetan. Zehazki, %10,2ko jaitsiera izan zen 25.000 eta 100.000 biztanle artekoetan. Era berean, diru-sarrerren/katxeta erlazioa hobetu egiten da biztanleriaren eskalan gora egin ahala.

IKUSLE MOTA

Bildutako 10€-tik 8€ pertsona helduei zuzendutako emanaldiei dagozkie (%81,8). Horrela, helduentzako/gazteentzako ikuskizunek diru-sarrera/katxeta erlazioa hobea eskaintzen dute, katxeta kostuen %33,3 leihatila bidez estalia, eta haurren kasuan, aldiz, %22,6. .

² Hiriburuetako estimazioak kontuan hartuta.

ESTATISTIKA TAULA OSAGARRIAK

ADIERAZLE
EKONOMIKOEN
bilakaera

	€		Bilakaera %	
	2019	2021	Aldea	%
Hiriburuen daturik gabe				
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.458,09	1.007,10	-450,99	-%30,9
Ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	6,70	6,71	-0,01	-%0,2
Batez besteko kostuak emanaldiaren arabera	3.754,60	3.401,42	-353,18	-%9,4
Batez besteko kostuak ikusle bakoitzeko	32,00	38,94	6,94	%21,7
Kostuen estaldura-tasa	%35,1	%30,3	-4,8	
Hiriburuen datuak estimatuta				
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	2.808,15	1.674,21	-1.133,94	-%40,4
Ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	8,87	8,17	-0,70	-%7,9
Batez besteko kostuak emanaldiaren arabera	4.667,75	3.852,91	-814,84	-%17,5
Batez besteko kostuak ikusle bakoitzeko	30,21	36,38	6,17	%20,4
Kostuen estaldura-tasa	%46,7	%40,4	-6,3	
Aldundien dirulaguntza				
Batez besteko diru-kopurua, emanaldi bakoitzeko	864.639,82	842.019,18	-22.621	-%2,6
Batez besteko dirulaguntza ikusle bakoitzeko	451,74	434,03	-18	-%3,9
Batez besteko dirulaguntza ikusle bakoitzeko	1,67	2,53	0,86	%51,7

Adierazle ekonomikoak UDAL-TAMAINAREN arabera

	€		Bilakaera %	
	2019	2021	Aldea	%
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.458,09	1.007,10	-450,99	-%30,9
0-7.500	450,06	325,55	-124,51	-%27,7
7.501-25.000	1.153,01	826,58	-326,43	-%28,3
25.001-100.000	2.340,68	1.623,13	-717,55	-%30,7
Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostua	3.754,60	3.401,42	-353,18	-%9,4
0-7.500	2.380,40	2.342,19	-38,21	-%1,6
7.501-25.000	3.439,59	3.219,31	-220,28	-%6,4
25.001-100.000	4.868,16	4.372,17	-495,99	-%10,2
Kostuen estaldura-tasa	%35,1	%30,3	-4,8	
0-7.500	%22,1	%16,9	-5,2	
7.501-25.000	%31,5	%26,7	-4,8	
25.001-100.000	%45,7	%38,5	-7,2	
Hiriburuen datuen estimazioa				
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	6.960,42	4.295,10	-2.665,32	-%38,3
Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostua	7.721,08	5.554,67	-2.166,41	-%28,1
Kostuen estaldura-tasa	%84,5	%84,9	%0,4	

Adierazle ekonomikoak antzokiaren FORMATU/MAILAren arabera

	€		Bilakaera	
	2019	2021	Aldea	%
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.458,0	1.007,10	-450,90	-%30,9
Formatu txikia	870,93	598,39	-272,54	-%31,3
Formatu ertaina	1.494,59	1.227,48	-267,11	-%17,9
Formatu handia	2.999,28	1.826,99	-1.172,29	-%39,1
Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostua	3.754,60	3.401,42	-353,18	-%9,4
Formatu txikia	3.058,95	2.932,57	-126,38	-%4,1
Formatu ertaina	3.768,33	3.692,79	-75,54	-%2,0
Formatu handia	5.801,37	4.595,81	-1.205,56	-%20,8
Kostuen estaldura-tasa	%35,1	%30,3	-4,8	
Formatu txikia	%27,2	%21,5	-5,7	
Formatu ertaina	%38,1	%33,9	-4,2	
Formatu handia	%48,3	%39,3	-9,0	

Adierazle ekonomikoak IKUSLE MOTaren arabera

	€		Bilakaera	
	2019	2021	Aldea	%
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.458,0	1.007,10	-450,90	-%30,9
Heldua / gaztea	1.700,59	1.183,50	-517,09	-%30,4
Haurrak	971,74	552,29	-419,45	-%43,2
Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostua	3.754,60	3.401,42	-353,18	-%9,4
Heldua / gaztea	4.430,05	3.791,88	-638,17	-%14,4
Haurrak	2.456,32	2.397,98	-58,34	-%2,4
Kostuen estaldura-tasa	%35,1	%30,3	-%4,8	
Heldua / gaztea	%35,7	%33,3	-%2,4	
Haurrak	%33,9	%22,6	-%11,3	

4.- EUSKAL KONPAINIAK

2021ean programatu diren euskal konpainien kopurua

Pandemiarekin indartu egin da euskal konpainien presentzia SAREaren eskaintza eszenikoan

346 konpainia

Euskal konpainiek Sarearen programazioan duten garrantziak gora egin zuen pandemiarekin, 2019an programatutako konpainien %45,2 izatetik 2020an %54,1 izatera igaro baitzen, eta antzeko proportzioan mantendu zen 2021ean (%53,2).

Azpmarratzekoa da igoera hori programatutako konpainia kopuru handiagoan oinarritzen dela: 346 konpainia zeuden 2021ean, eta 282, berriz, 2019an. Gainera, konpainia bakoitzeko batez besteko emanaldi kopuruaren ratioa antzeko balioetan mantentzen da (3,9 emanaldi konpainia bakoitzeko, batez beste, 2019an, eta 3,8, berriz, 2021ean).

BILAKAERA

Sarearen esparruan 2021ean programatutako emanaldien bi herenak euskal konpainienak izan ziren (%67,1). Horrela, euskal konpainien 1.302 emanaldiek %17ko igoera dakarte 2019an programatutakoekin alderatuta. Ikusleei dagokionez, guztira 193.893 ikusle izan ziren euskal konpainien emanaldietan 2021ean; hala ere, batez beste 67 pertsona gutxiago zenbatu ziren emanaldi bakoitzeko 2019an baino.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Antzoki txikiak programatu zuten 2021ean euskal konpainien ikuskizun kopuru handiena, Sarean programatutako euskal konpainien emanaldien %38,2rekin. Ondoren, formatu ertaineko antzokiak daude garrantziaren arabera ordenatuta, emanaldien %32,9rekin.

GENEROA

Sarean ibili ziren euskal konpainien erdia inguru musika-taldeak izan ziren (%48,8), %38,7 antzerkiaren diziplinakoak, %13,6 dantza-konpainiak eta gainerako %2,3 talde lirikoak. Hala ere, euskal konpainien emanaldien

kopuruari erreparatuz gero, bi heren inguru (%65,7) antzerki-ikuskizunak izan ziren, %22,9 musika-kontzertuak eta %10,6 dantza-emanaldiak.

Euskal konpainien ADIERAZLE EKONOMIKOAK

Euskal konpainiek, a priori, estatuko konpainiek baino datu ekonomiko okerragoak aurkezten dituzte, baina, horri dagokionez, kontuan hartu behar da datuak ezin direla alderatu, EAEko konpainien barruan konpainia-tipologia zabala baitago; estatuko konpainiek, aldiz, beste erkidego batzuetan egiten dute bira, normalean ibilbide edo aintzatespen handia izaten dute, eta neurri handiagoan programatzen dira formatu ertain edo handiko antzokietan. Hala ere, adierazle ekonomikoek okerrera egin dute 2019. urtearekin alderatuta, bai euskal konpainietan, bai estatukoetan.

- Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak: 837,91€ (2019 baino 283€ gutxiago).
- Emanaldiko batez besteko kostuak: 3.013€ (2019 baino 222€ gutxiago).
- Kostuen estalduratasak: %31,4 (2019an baino ehuneko 3 puntu gutxiago).

ESTATISTIKA TAULA OSAGARRIAK

Euskal konpainiek SAREAn duten pisua programatutako konpainia guztiekiko

Jatorriaren arabera.
2021

	Abs	%
Euskal konpainiak	346	%53,2
Estatuko konpainiak	253	%38,9
Atzerriko konpainiak	51	%7,8
GUZTIRA	650	%100,0

Jatorriaren arabera
(Emanaldiak eta ikusleak)

	Emanaldiak	
	Abs.	%
Euskadi	1.302	%67,1
Estatua	551	%28,4
Atzerria	87	%4,5
GUZTIRA	1.940	%100,0

	Ikusleak		Ikusle/ emanal.
	Abs.	%	
	193.893	%58,1	148,9
	116.679	%35,0	211,8
	22.924	%6,9	263,5
GUZTIRA	333.496	%100,0	171,9

Emanaldien eta ikusleen bilakaera konpainiaren jatorriaren arabera

	2019-2021	2020-2021
Emanaldi kopurua		
Euskadi	+%17,0	+%33,1
Estatua	-%20,4	+%15,8
Atzerria	-%20,2	+%107,1
Ikusle kopurua		
Euskadi	-%19,2	+%20,6
Estatua	-%52,0	+%5,7
Atzerria	-%34,4	+%177,0
Batez besteko ikusleak emanaldi bakoitzeko		
Euskadi	215,7	148,9
Estatua	351,3	211,8
Atzerria	320,4	263,5

Euskal antzerki- eta dantza-konpainiak, Sarean programatutako emanaldi-kopuruaren arabera. 2021

	Antzerkia		Dantza	
	Konpainia kop.	%	Konpainia kop.	%
Emanaldi 1	54	%40,3	23	%48,9
2-5 emanaldi	41	%30,6	17	%36,2
6-10 emanaldi	15	%11,2	6	%12,8
10 emanaldi baino gehiago	24	%17,9	1	%2,1
GUZTIRA	134	%100,0	47	%100,0

Konpainiak jatorriaren eta GENEROaren arabera.2021

	Euskal konpainiak		Estatuko konpainiak		Atzerriko konpainiak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Antzerkia	134	%38,7	155	%61,3	7	%13,7
Dantza	47	%13,6	36	%14,2	11	%21,6
Musika	169	%48,8	58	%22,9	28	%54,9
Lirika	8	%2,3	5	%2,0	6	%11,8
GUZTIRA	346	%100,0	253	%100,0	51	%100,0

Emanaldiak, konpainien jatorriaren eta GENEROaren arabera. 2021

	Euskal konpainiak		Estatuko konpainiak		Atzerriko konpainiak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Antzerkia	855	%65,7	415	%75,3	13	%14,9
Dantza	138	%10,6	44	%8,0	23	%26,4
Musika	298	%22,9	82	%14,9	45	%51,7
Lirika	11	%0,8	10	%1,8	6	%6,9
GUZTIRA	1.302	%100,0	551	%100,0	87	%100,0

	Antzerkia		Dantza		Musika		Lirika	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Euskal konpainiak	855	%66,6	138	%67,3	298	%70,1	11	%40,7
Estatuko konpainiak	415	%32,3	44	%21,5	82	%19,3	10	%37,0
Atzerriko konpainiak	13	%1,0	23	%11,2	45	%10,6	6	%22,2
GUZTIRA	1.283	%100,0	205	%100,0	425	%100,0	27	%100,0

Konpainien jatorria, antzokiaren FORMATU / MAILAren arabera. 2021

	Euskadi		Estatua		Atzerria	
	Emanaldiak	Ikusleak	Emanaldiak	Ikusleak	Emanaldiak	Ikusleak
Hiriburuak	287	71.407	227	71.942	42	16.404
Formatu handiko antzokiak	90	11.718	47	8.853	8	1.773
Formatu ertaineko antzokiak	428	62.158	154	25.323	24	4.041
Formatu txikiko antzokiak	497	48.610	123	10.561	13	706
GUZTIRA	1.302	193.893	551	116.679	87	22.924

	Euskadi		Estatua		Atzerria	
	Emanaldiak	Ikusleak	Emanaldiak	Ikusleak	Emanaldiak	Ikusleak
Hiriburuak	%22,0	%36,8	%41,2	%61,7	%48,3	%71,6
Formatu handiko antzokiak	%6,9	%6,0	%8,5	%7,6	%9,2	%7,7
Formatu ertaineko antzokiak	%32,9	%32,1	%27,9	%21,7	%27,6	%17,6
Formatu txikiko antzokiak	%38,2	%25,1	%22,3	%9,1	%14,9	%3,1
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Adierazle ekonomikoak, SAREAn programatutako konpainien jatorriaren arabera. Bilakaera

	2019	2021	Aldea	%
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.458,00	1.007,10	-450,90	-%30,9
Euskal konpainiak	1.121,42	837,91	-283,51	-%25,3
Estatuko konpainiak	2.100,79	1.386,21	-714,58	-%34,0
Atzerriko konpainiak	1.888,09	1.888,72	0,63	%0,0
Batez besteko kostuak emanaldi bakoitzeko	3.754,60	3.401,42	-353,18	-%9,4
Euskal konpainiak	3.234,28	3.012,75	-221,53	-%6,8
Estatuko konpainiak	4.858,06	4.453,01	-405,05	-%8,3
Atzerriko konpainiak	4.030,29	4.682,46	652,17	%16,2
Kostuen estaldura-tasa	%35,1	%30,3	-4,8	
Euskal konpainiak	%34,4	%31,4	-3,0	
Estatuko konpainiak	%36,5	%27,4	-9,1	
Atzerriko konpainiak	%34,6	%29,5	-5,1	

5.- EUSKARAZKO ANTZERKIA

Euskarazko antzerki-emanaldien
kopurua **2021**

**Euskarazko antzerkiaren
eskaintzari eusten zaio, baina
ikusle helduei gehiago
bideratzen zaie.**

640 emanaldi

Euskarazko antzerki-eskaintza Sarearen antzerki-eskaintzaren erdia da (%49,9), eta ikusleen ehuneko bera biltzen du. Hala ere, aurreko urteetan ez bezala, eskaintza helduengan/gazteengan oinarritzen da gehien. Nolanahi ere, euskarazko programazioak pisu erlatiboari eusten dio haurrentzako antzerki-programazio osoarekiko.

BILAKAERA

Euskarazko antzerkiak emanaldi bakarra galdu du 2019. urtearekin alderatuta, helduentzako/gazteentzako programazioaren gorakadari esker (+%32,2); aldiz, haurrei zuzendutakoak %18,6 egin du behera, publiko mota horrentzako programazioaren jaitsiera orokorraren ildotik. Ildo horretan, euskarazko antzerkiko haurren kopurua erdira jaitsi zen (-%50,6), 2019ko 94.952 ikusleetatik 2021eko 46.890era, eta helduen/gazteen kopurua, berriz, %41 jaitsi zen.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Euskarazko antzerkiaren programazioaren %80 inguru antzoki txikietan (%45) eta ertainetan (%33,4) egiten da; formatu handiko antzokietan eta hiriburuetako antzoki handietan, berriz, programazioaren %5 eta %16,6, hurrenez hurren.

IKUSLE MOTA: Haurrei zuzendutako 4 antzerki-emanalditik ia 3 (%73,2) euskaraz dira. Helduentzako emanaldien kasuan, 4 emanalditik 1 baino apur bat gehiago euskaraz egiten da (%27).

ADIERAZLE EKONOMIKOAK

Antzerki-emanaldien diru-sarreraren erdia inguru (%48,7) euskarazko antzerkitik dator. Hala ere, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak eta gastuak gaztelaniazkoak baino askoz ere txikiagoak dira, hein handi batean haur programazioan euskarak garrantzi handiagoa duelako.

- Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak: 699€ (2019an baino 300€ gutxiago eta gaztelaniazko antzerki-emanaldiek baino 584€ gutxiago).
- Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostuak: 2.881€ (2019an baino 93€ gutxiago eta gaztelaniazko antzerki-emanaldiek baino 1.575€ gutxiago).
- Kostuen estaldura-tasa: %24,8, (2019an baino ehuneko 7,6 puntu gutxiago eta gaztelaniazko antzerkiak baino 2,7 puntu gutxiago).

ESTATISTIKA TAULA OSAGARRIAK

Antzerki-emanaldien hizkuntza eta ikusleak. 2019-2021

	Emanaldiak				Aldakuntza tasa	Ikusleak				Aldakuntza tasa	Ikusleak emanaldiko	
	2019		2021		2019-2021	2019		2021		2019-2021	2019	2021
	Abs.	%	Abs.	%		Abs.	%	Abs.	%			
Euskara	641	%44,3	640	%49,9	-%0,2	134.344	%35,2	86.329	%40,9	-%35,74	209,6	134,9
Gaztelania	617	%42,6	533	%41,5	-%13,6	211.258	%55,3	111.793	%53,0	-%47,08	342,4	209,7
Testurik gabe	170	%11,7	103	%8,0	-%39,4	30.849	%8,1	10.487	%5,0	-%66,01	181,5	101,8
Beste batzuk	10	%0,7	7	%0,5	-%30,0	4.603	%1,2	2.263	%1,1	-%50,84	460,3	323,3
Euskara eta gaztelania	10	%0,7	0	%0,0		860	%0,2		%0,0		86,0	
GUZTIRA	1.467	%100,0	1.283	%100,0	-%11,4	381.914	%100,0	210.872	%100,0	-%44,79	263,8	164,4

Antzerki- emanaldien hizkuntza eta ikusleak, IKUSLE MOTAre arabera. 2021

	Emanaldiak		Ikusleak		Batez beste	
	Abs.	%	Abs.	%		
Ikusle heldu/gazteak	Euskara	308	%37,2	39.439	%26,2	128,0
	Gaztelania	502	%60,6	107.106	%71,2	213,4
	Testurik gabe	12	%1,4	1.720	%1,1	143,3
	Beste batzuk	7	%0,8	2.263	%1,5	323,3
	Euskara eta gaztelania	0	%0,0	0	%0,0	
	GUZTIRA	829	%100,0	150.528	%100,0	181,6

	Emanaldiak		Ikusleak		Batez beste	
	Abs.	%	Abs.	%		
Haurrak	Euskara	332	%73,1	46.890	%77,7	141,2
	Gaztelania	31	%6,8	4.687	%7,8	151,2
	Testurik gabe	91	%20,0	8.767	%14,5	96,3
	Beste batzuk	0	%0,0	0	%0,0	
	Euskara eta gaztelania	0	%0,0	0	%0,0	
	GUZTIRA	454	%100,0	60.344	%100,0	132,9

Euskarazko antzerkiaren bilakaera publiko motaren arabera 2019-2021

	Emanaldiak	Ikusleak	Ikusleak emanaldiko
Ikusle heldu/gazteak	%32,2	%0,1	-41,0
Haurrak	-%18,6	-%50,6	-91,5

Euskarazko antzerki-emanaldiak eta ikusleak, Antzokiaren FORMATU/MAILAren arabera

	Emanaldiak			Ikusleak		
	2019	2021	2019-2021	2019	2021	2019-2021
Hiriburuetako antzokiak	120	106	-%11,7	31.343	22.179	-%29,2
Formatu handiko antzokiak	58	32	-%44,8	16.974	4.335	-%74,5
Formatu ertaineko antzokiak	185	214	%15,7	42.479	30.590	-%28,0
Formatu txikiko antzokiak	278	288	%3,6	43.548	29.225	-%32,9
Guztira	641	640	-%0,2	134.344	86.329	-%35,7

Euskarazko antzerkiaren pisua maila bakoitzeko antzerki-programazio osoarekiko

	% euskarazko emanaldiak	
	2019	2021
Hiriburuetako antzokiak	%23,5	%27,7
Formatu handiko antzokiak	%35,6	%36,0
Formatu ertaineko antzokiak	%49,3	%56,8
Formatu txikiko antzokiak	%69,5	%66,4

Adierazle ekonomikoak, antzerki-ernaldien hizkuntzaren arabera.

	2019	2021	Aldea	%
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.376,40	1.021,82	-354,58	-%25,8
Euskara	999,73	699,67	-300,06	-%30,0
Gaztelania	2.046,24	1.283,45	-762,79	-%37,3
Testurik gabe	1.141,66	366,02	-775,64	-%67,9
Beste batzuk	636,00	4.837,48	4.201,48	%660,6
Euskara eta gaztelania	847,43		-847,43	-%100,0
Bataz besteko kostuak emanaldiko	3.624,38	3.374,00	-250,38	-%6,9
Euskara	2.973,69	2.880,50	-93,19	-%3,1
Gaztelania	4.637,60	4.455,38	-182,22	-%3,9
Testurik gabe	3.602,08	2.518,85	-1.083,23	-%30,1
Beste batzuk	1.936,36	7.767,80	5.831,44	%301,2
Euskara eta gaztelania	5.376,81		-5.376,81	-%100,0
Kostuen estaldura-tasa	%34,9	%25,1	-9,8	
Euskara	%32,3	%24,8	-7,5	
Gaztelania	%40,1	%27,4	-12,7	
Testurik gabe	%27,4	%17,2	-10,2	
Beste batzuk	%32,8	%62,4	29,6	
Euskara eta gaztelania	%14,3		-14,3	

6.- GENEROA

Sarean programatutako hiru emanalditik bi antzerkikoak dira.

2021ean, Sarearen programazioaren bi heren (%66,1) antzerkikoak izan ziren; hala ere, 2019arekin alderatuta, eskaintzak garrantzia galdu du (%75,7) musikaren eta dantzaren alde, eskaintzaren %21,9 eta %10,6 baitira. Azkenik, lirikak (%1,4) du eskaintzarik txikiena.

BILAKAERA

Antzerkiaren eta lirikaren programazioak behera egin zuen 2019. urtearekin alderatuta (-%11,4 eta -%42,6, hurrenez hurren); musika eta dantzaren programazioak, berriz, nabarmen egin zuen gora (+%77,1 eta +%14,5, hurrenez hurren).

Ikusleei dagokienez, antzerkiak SAREako espazioetara joaten diren ikusleen %63,2 erakarri zuen 2021ean. Ondoren, musika (%24,7), dantza (%9,3) eta, azkenik, lirika (%2,7) daude. Azken honek, ehunekorik txikiena izan arren (%2,7), emanaldi bakoitzeko ikusle kopuruaren batez besteko altuena du (337), ondoren musika (194), antzerkia (164) eta dantza (151) daude.

Nolanahi ere, emanaldi bakoitzeko ikusle kopuruaren batez bestekoak behera egin zuen genero guztietan, eta bereziki esanguratsua izan zen lirikako ikuskizunetan 2019arekin alderatuta dagoen alde, 253 parte hartzaile gutxiago izan baitziren emanaldi bakoitzeko (batez beste); hori, neurri batean, koherentea da, kontuan hartuta pandemiaren ondorioek eragin handiagoa izan dutela formatu handiko ikuskizunetan.

IKUSLE MOTA

Txikientzako musika eta dantza eskaintza murriztu da. Zehazki, ikusle mota horrek programatutako musika-emanaldien %8,5 eta dantza-emanaldien %4,4 hartzen ditu. Kontrapuntu gisa, haurrei zuzendutako eskaintza lirikoa nabarmentzen da (%37).

ADIERAZLE EKONOMIKO BATZUK

2019. urtearekin alderatuta, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak nabarmen murriztu ziren genero guztietan, eta beherakada txikiena musikari dagokio (-%20,9), eta handiena lirikari (-%72,9). Hala ere, genero horrek izan zuen ikuskizunen diru-sarrearen eta katxetaren arteko proportziorik onena (%48,6).

Batez besteko katxetak proportzio neurritsu samarrean jaitsi ziren antzerki-emanaldietan (-%6,9), musikan (-%11,8) eta dantzan (-%17,7) izandako diru-sarrerekin alderatuta. Lirikaren kasuan, batez besteko katxeta %64,5 jaitsi zen; hala ere, kontuan izan behar da, programazioaren murrizketa dela eta, ikuskizun jakin batzuen datuek eragin handia izan dezaketela emaitzetan.

Emanaldien adierazle ekonomikoen bilakaera generoaren arabera

	2019	2021	Aldea	%
Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak	1.458,00	1.007,10	-450,90	-%30,9
Antzerkia	1.376,40	871,32	-505,08	-%36,7
Dantza	1.174,22	701,19	-473,03	-%40,3
Musika	1.763,76	1.395,56	-368,20	-%20,9
Lirika	5.713,59	1.548,33	-4.165,26	-%72,9
Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostuak	3.754,60	3.401,42	-353,18	-%9,4
Antzerkia	3.624,38	3.374,00	-250,38	-%6,9
Dantza	3.166,01	2.607,14	-558,87	-%17,7
Musika	4.359,49	3.845,01	-514,48	-%11,8
Lirika	9.797,00	3.481,00	-6.316,00	-%64,5
Kostuen estaldura-tasa	%35,1	%30,3	-4,8	
Antzerkia	%34,3	%25,1	-9,2	
Dantza	%36,0	%43,8	7,8	
Musika	%37,0	%37,8	0,8	
Lirika	%59,0	%48,6	-10,4	

7.- FITXA TEKNIKOA

Informazioaren jatorria:

- Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek emandako informazioa, SAREaren antzoki eta aretoetako dirulaguntzen eskaeretatik abiatuta
- SAREako antzoki eta aretoek emandako informazio osagarria
- Hiriburuen kasuan (Gasteiz, Donostia eta Bilbo), antzokiek zuzenean emandako informazioa
- Jasotako informazioa osatzeko, homogeneizatzeko eta arazteko bigarren mailako informazio-iturriak (jarduera-memoriak, programazioak eta dosierrak, aurrekontuak eta udalen gastua; ikuskizunaren eta konpainiaren izena, ikusle-mota, ikuskizunaren hizkuntza, konpainiaren jatorria, adierazle ekonomikoak, etab.).

Erantzun-indizea (analisiaren erabilitako oinarriak)

- Jardueraren berri emateko: 62 antzoki
- Informazio ekonomikorako: 62tik 56 antzoki

Aztertzen diren aldagaiak

- SAREaren antzoki eta aretoetan egiten diren antzerki, dantza, musika eta lirikako ikuskizunetara **bertaratzen diren ikusleak**
- SAREaren antzoki eta aretoetan garatutako antzerki, dantza, musika eta lirikako ikuskizunen **emanaldiak**
- SAREaren antzoki eta aretoetan garatutako antzerki, dantza, musika eta lirikako ikuskizunak programatzeko **aurrekontua**

Aldagai nagusiak aztertzeko erabilitako sailkapen-aldagaiak

- **Udal-tamaina** (0-7.500 biztanle; 7.5001-25.000 biztanle; 25.001-100.000 biztanle; 100.000 biztanle baino gehiago)
- **Antzokiaren formatua** (Hiriburuetakoko antzokiak; formatu handia, formatu ertaina; formatu txikia): formatu mota programazio-bolumenaren eta urteko kontratazio-gastuaren arabera ezartzen da.
- **Ikusle mota** (Heldua/gaztea; haurrak): SAREaren antzoki eta aretoetan antzerki, dantza, musika eta lirikako emanaldietara joaten diren ikusle motak.
- **Generoa** (antzerkia, dantza, musika, lirika): SAREaren antzoki eta aretoetan antzeztutako ikuskizunen diziplina artistikoa.
- **Hizkuntza** (testurik gabe, euskara, gaztelania, beste batzuk, euskara-gaztelania elebiduna, beste batzuk); SAREaren antzoki eta aretoetako emanaldien hizkuntza.
- **Konpainiaren jatorria** (Euskadi, Estatuak, Atzerria)

Ratioak

- **Ikusleak emanaldi bakoitzeko:** Ikuskizunetara joan diren pertsonen kopuruaren eta emanaldien kopuruaren arteko zatidura
- **Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostuak:** Kostuen zatidura emanaldi kopuruaren artean
- **Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak:** Diru-sarreraren zatidura emanaldien kopuruaren artean
- **Gastuen estaldura-tasa:** diru-sarrerak konpainien kontratazio-kostuak estaltzen dituzten ehunekoa (diru-sarrerak/kostuak).